

Donostia, 2022ko irailaren 8an

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

OHIKO MOZIOA, DONOSTIAN TASA TURISTIKOA EZARTZEARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko Aitzole Araneta bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluekin bat etorruta, Donostian tasa turistikoa ezartzeari buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak turistifikazio-prozesu bat bizi izan du azken urteotan, eta ondorio ugari izan ditu bai hiriarentzat bai bertan bizi diren pertsonentzat. Enplegua eta aberastasuna sortzen dituen arren, turismoaren hazkundeak eragin negatiboa izan du eta izaten jarraitzen du udalerriko zenbait alderditan.

Ziurrenik, etxebizitzaren prezioan duen eragina da inpaktu nagusia. Etxebizitza bat lortzeko zailtasuna da hiriko arazo nagusietako bat, eta gazteak hiritik kanporatzeko prozesuaren arrazoi nagusia, duela urte batzuetatik hona bizi duguna.

Gainera, atzerriko enpresaburu handiak eta multinazionalak erakartzen dituen turismo masibo eta gaizki kudeatuak onura handiak ekar diezazkioke gutxiengo bati epe laburrean. Hala ere, gizarte-desorekak, enplegu prekarioa, mugikortasun-arazoak, kutsadura areagotzea eta donostiarren egunerokotasunean kalteak eragiten dituzten hainbat arazo ere sortzen ditu turismo-eredu horrek.

Horregatik, Donostiak lehenbailehen behar du Espainiako eta Europako beste hiri askotan indarrean dagoen tasa turistikoa. Turismo-tasa horrek, gure ustez, balio beharko luke turistifikazioak hirian eragiten dituen ondorio negatibo horiek arintzea helburu duten politikak finantzatzeko.

Euskadin, beste hiri batzuk tasa horren aurka agertu dira. Izan ere, turismoak Donostiako gizartean egiten duen presioaren aurrean, gaur egun, Euskadi osoan tasa hori behar duen hiri bakarra da Donostia. Horregatik, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

beharrezkoak diren arau-aldaketak egitea, Donostian turismo-tasa bat lehenbailehen ezarri ahal izateko.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzarak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio beharrezko lege-aldaketak egin ditzala Donostian turismo-tasa bat ezarri ahal izateko, turistifikazioaren ondorioak arintze aldera.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea